

Aire kalitatea hobetzeko jarduera planak

Kaltetutako udalak ondoko taulan ageri dira. Sailkapena egiteko, eremuak, legezko mugak **lehen aldiz gainditu** zireneko urteak **eta kasu bakoitzean bidalitako dokumentazioa** izan dira kontuan.

| Udalei bidalitako dokumentazioa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Diagnostikoa Ekintza Proposamena (2007ko otsailean) | | Diagnostikoa Ekintza Proposamena (2007ko azaroan) | | |
| GAINDITZEAK 2003an | GAINDITZEAK 2004an | GAINDITZEAK 2005ean | GAINDITZEAK 2006an | GAINDITZEAK 2007an |
| NERBIOI BEHEA Alonsotegi (*) Barakaldo Basauri Bilbao Erandio Portugalete (*) DONOSTIALDEA Lezo (*) IBAIZABAL-DEBA GOIENA Zornotza Arrasate Durango (*) KOSTALDEA Zierbena (*) | DONOSTIALDEA Errenteria GOIHERRI Beasain (*) | NERBIOI BEHEA Abanto-Zier (*) Getxo (*) ARABAKO LAUTADA Vitoria-Gasteiz (Betoño) (*) UROLA GARAIA Azpeitia (*) IBAIZABAL-DEBA GOIENA Lemoa (*) | NERBIOI BEHEA Santurtzi ORIA GARAIA Tolosa (*) (Diagnostikoa 2008ko apirilean eginda) | NERBIOI GARAIA Arrigorriaga UROLA GARAIA Zumarraga |

(*) – 2007 – Airearen limiteak beteta 2007an

GAINDITZEAK 2007an:

Lehendabizi, esan beharra dago ez dela SO₂, NO₂ edo CO mugen (1073/2002 Errege Dekretua) gaindiketarik izan EAEn. Aitzitik, PM₁₀eko gaindiketak 10 udaletan nabaritu izan dira.

Beraz, 2007ko datuak kontuan izanda, **ARRIGORRIAGAK eta ZUMARRAGAK Ekintza Planak aurrera eraman behar dituzte** aire kalitatearen hobekuntzarako. Gainera, **BILBAOK, ZORNOTZAK, SANTURTZIK, ERANDIOK, ARRASATEK, BARAKALDOK, ERRENTERIAK eta BASAURIK aurrera jarraitu behar dute** martxan dituzten ekintza planekin.

Bestalde, **TOLOSA, PORTUGALETE, DURANGO, VITORIA-GAZTEIZ, ABANTO-ZIERBENA, ZIERBENA, BEASAIN, GETXO, eta AZPEITIAko udalek ez daukate orain ekintza planekin jarraitzeko beharrik**, nahiz eta lehenagoko urtetan gainditzeak izan. Dena den, ekintza plan horiek burutu dezaten gomendatu die Sailburuordetza honek.